

# [b]

**BARREN**

ELGOIBARKO ASTEKARIA

565. zkia.
XIII. urtea
2006ko martxoaren 24a

**Arkaitz Egaña** *Minixeta II.*a harri-jasotzailea

# «20 kiloko harria jaso nuen 8 urterekin»

[ **LUZE ZABAL** ] UDAL AURREKONTUAK • [ **KULTURA** ] KIRIBILKA EGITASMOA

# ZEZEN-BIDE

## AUTO ESKOLA

Kotxerako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

## **Ordenagailu bidez** *teoria ikasteko gela berria* !



**ORDUTEGIA**

**10:00**etatik-**12:30**era
**15:00**etatik-**20:30**era

**San Frantzisko, 43 - 1. solairua**
Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR

**Ego Gain, 4 behea**
(San Andres pasealekutik)
Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR



# ZOZOAK BELEARI...



**ALAITZ VIVES**

Prestatu al dituzu asteburuurako "litroak"? Kalimotxoa, zerbeza ala patxarra duzu gustoko? Alkohola dela eta ez dela, gerra ederra daukagu azken asteetan, ezta Alain? Ez naiz ni orain inori lekzioak ematen hasiko; boteilloian ez, baina San Frantzisko kalean hainbatetan gora eta behera ibilitakoa naiz eta. Baina atentzioa emateko modukoa da hain zaharra den kontua oraindik ere behin eta berriz eztabaidagai izaten jarraitzea. Botelloilaren alde daudenen argumentuak: alkohola tabernatan garestiegia dela, kalean libreki dibertitzeko eskubidea... auzokoek sufritzen dituzte ordea botelloizaleen gehiegikeriak.

Botila eta zakar saltsa honetan zerbaitek atentzioa ematen badit makroboteiloien ostean izandako iskanbiletan atxilotu dituzten zenbait gazteren adina da. Hamabost-hamasei urterekin mundua jan (eta edateko) eta muga guztiak gainditzeko duzun gogoak edozer probatu eta egitera eramaten zaitu. Aizu, baina hogeitasei urteko gazteak botelloia baino kezka haundiagorik izango al du ezta? Ez ditut ikasle frantsesak adibide bezala jarriko. Izan ere, gurean horrelako manifestazioak antolatu, unibertsitateak gelditu eta kalean antzerako iskanbilak sortuko balira, orduan ere izango genuke zer kritikatu eta zertaz kexatua. Hala ere, behin hogeitasei urte betez gero, norberaren aisialdia botila, alkohol usain eta zakar artetik harago egon daitekeela pentsatzen hasteko sasoia izan daiteke, ezta?

> **«Alkohola dela eta ez dela gerra ederra daukagu»**
> ALAITZ

> **«Beharrezkoa da, hala eta guztiz, akelarrea»**
> ALAIN

**ALAIN ULAZIA**

Joño, joño, 26 urteko gazteak ere tartean makrobotelloian; ez da izango?.

Hori denk mozkorra!; axe'ra lanbaza!; zelango marejadie; horrek harrapau jonk atxurra; hori denk ximaurra; earra legatza horrena; axelango pekotza; mahatxa daroana; horditurik zetzan bere narruzko eserlekuan jonhy walkerra eskuan irrist...

Mila hitz, istorio bakarra. Ihesaren aldeko manifestua alkoholaren altzoan, telebixiñuaren, Hollyooden, foballaren, lan adizioaren altzoan izan leiken lez.

Anfetaminen altzoan ere bai baina, ezta? Matrailekua, matraila aterrizatzeke, oxtixa galanta, largak ipinitta... Ze, beste drogak ere egongo ziren eta foballari buruzko berbaldiak ere, ezta? Makro-ihesa. Izan ere, gizarte balbulak laxatu egin behar dira apur bat sikiera, nerbioak eta estresak aska ditzagun Xixtimak esplotatutakook. Makro-ihesa ekidingo duen Guantanamorik ez dute eraiki behintzat.

Bitartean irakiar erresistentziak hor darrai x urteurrenean zintzo, gure gasolindegietako prezioak igotzen; gasolinapeko gure Xixtima berriz, gerra egiteko eta beldurra elikatzeko alkoholaren eta beste droga legalen zergak igotzen. Irakiarrek ez dute ihes egin. Euskal presoek ere ez. Beste asko ihesean doaz, baina norantz jakin barik.

Beharrezkoa da, hala eta guztiz, akelarrea.

> “NORBERAKERIA EZ DA GOGOAK EMAN BEZALA BIZITZEA, BESTEAK GURI GOGOAK EMATEN DIGUN BEZELA BIZI DAITEZEN NAHI IZATEA BAIZIK”
>
> Oscar Wilde

## Adierazpen askatasuna

Askotxotan hartzen dugu ahotan adierazpen askatasuna herri honetan, batipat kontuan hartuta guztioi dagokigun eskubidea dela eta jendartean onarpen zabala duela. Hala ere gehiegitan zapaldua izaten den eskubidea dugu hau eta gure herria ez da salbuespena.

Joan den asteko BARRENen kaleen garbitasunari buruzko Udalaren irizpideaz jakin genuen. Garbitasunaren izenean kartelak kentzen dituen enpresa bat kontratatzen omen du udalak. Gainera, deialdiak egiteko bide hobeak aholkatzen ditu: komunikabideak.

Kartelak ezartzea ez da gaur goizeko jarduera, aspalditik era guztietako kartelak izaten dira gure kaleetan, Udalarenak ere bai. Itxuraz, batzuek baino ez dituzte kaleak zikintzen ordea eta egunero kentzen dituzte (azken hauek bakarrik).

Kartelak kentzea ere ez da gaur goizeko jarduera eta nahiz eta mila aitzaki erabili adierazpen askatasuna zapaltzeko, agerikoa da PNVk bere interes propioak babesteko erabiltzen dituela udal baliabideak. Guztion diruaz ordaintzen duen enpresa dauka kartelak kentzeko, kartelen edukiaren arabera larunbat goizetan ere lan egiten duena. Izan dira, zentsura bizibide duten langile hauek, bi alditan etorri beharra izan duten egunak. Honetarako aurrekontuak ez du mugarik.

Azkenik, deialdiak egiteko komunikabideak asko izan daitezke eta zuzenenetako bat kalea da. Ezin diogu honi uko egin, ezin diogu adierazpen askatasunari uko egin.

**I.B.A. - Q6827117G**

## Kilometroak

Pena ematen dit hildako gudarien omenezko eskelak El Correo Español eta Diario Vascon ikusteak. Pena ematen dit ikastolen jaien alde kilometroak egiten dituztenak goizero El Correo Español eta Diario Vasco erosten ikusteak (printzipeen argazki eta guzti). Pena ematen dit otsoa artaldean edukita ez dakigulako bere mozorroaren azpian zer dagoan ikusten.

Nafarroan oinez egin dituen gudari baten ibilaldia beharbada? Herri urratsen artean Araba euskaraz egin dadin baztertu ditzagun bada ardiz mozorrotutako otsoak.

**Iñaki Larrañaga**

## Villeneuve Les Maguelone espetxetik

Hemen doakizue nire gutuntxoa, zuei jakinarazteko beste espetxe batera ekarri nautela. Hilabete bat daramat kartzela honetan, bakartuta, eta pixkanaka erritmoa hartzen. Frantsesek ere, dispertsioari gustua hartu diote eta oraingoan niri tokatu zait. Bakarrik egotea ez da batere atsegina, ea familiakoak nola moldatzen diren honaino etortzeko, hori da tristeena. Oso gustura irakurtzen dut herriko aldizkaria. Urte hauetan, BARREN, beste batzuk bezala, paper garrantzitsua egiten ari da Euskal Herritik aldentzen gaituzten ehundaka kilometroak gutxitzeko.

Besterik ez, zaindu zaitezte eta ea laster ikusten garen Elgoibar aldean.

Muxu anitz.

Aio.

**Fernando Bert**

E-POSTA

**barren@elgoibarkoizarra.com**

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zkia.**

[b]

**Laguntzailea** Elgoibarko Udala **Kazetariak** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea **Publizitatea** Eider Iriondo **Maketatzailea** Jaione Unanue **Kolaboratzaileak** Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Mikel Cornejo, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gurrutxaga, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen Olazabal, Iban Urizar, Kokoe K.E., Urruzuno, Unai Villena, Alaitz Vives **Esaera zaharra** Gotzon Garateren liburutik **Inprimategia** Gertu **Tirada** 4.420 ale **Lege gordailua** SS-1.038/92 **ISSN** 1139-1855

Argitaratzailea:

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
943 74 41 12 • Faxa: 943 74 37 04
Publizitatea: 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

DANOBAT · GOITI Grupo Danobat · ESTARTA Grupo Danobat · Kondia · kutxa

Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.

## KEXAK

• Argi indarraren poste bat erorita dago Erretxindin: "Joan zen asteko haize bortitzaren eraginez, argi indarraren poste bat erori zen Erretxindin eta oraindik bertan jarraitzen du. Arriskutsua da, eta gainera traba egiten du. Bestalde, Erretxindi auzoan, denbora luzean abandonatutako furgoneta bat dago. Udalak gauza hauek kontuan eduki beharko lituzke".

• Merkatu Plaza eta komun publikoetako garbitzaileak zikinkeriz beteta aurkitu zituen komun publikoak astelehen goizean: "Asteburuan gazte asko biltzen da Kultur Etxe ingurune honetan botiloia egiteko eta dena zikinkeriaz beteta uzten dute, ez dute ezer zaintzen. Aste honetan komunak zikinkeriz eta kristalez beteta aurkitu ditut. Ez dago eskubiderik, ez dute ezer zaintzen. Norbait arduratu beharko litzateke honetaz, zapatuan komuna egoera honetan gelditzen bada, domekan ezin du inork erabili".



## TXALOAK



• Sigmako zubiko zebra bideko lur-altuera kendu dute: "Bazen garaia! Oraindik ez dut ulertzen nola jarri zuten lur-altuera hori Sigmako zubiaren sarreran. Azkenean kendu dute, eta txalotzekoa da. Berandu bada ere, konturatu dira hankasartzea egin zutela eta konpondu dute. Orain askoz hobeto dago".

Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

**E-posta:** barren@elgoibarkoizarra.com
Nafarroa enparantza, 2
20870 **ELGOIBAR**
943 74 41 12

## komikia



## 1976-80: Aldaketa handiak gau-eskolan (II)

Aurreko asteko arrastoan segituz, 76tik 80ra bitartean gau-eskolan izan ziren beste aldaketa batzuen berri emango dizuegu jarraian:

• **Irakasleak:** Irakasleak profesionalizatzen hasiko dira. Baina, aurreko batean esan bezala, ez zen batere erraza izaten irakasleak lortzea. Soluzio modura, ikasleen artetik irakasleak ateratzea pentsatu zuten. Horrela, 81eko irailean, gau-eskolako 12 ikaslek Bergaran eman zuten izena orduko D titulua ateratzeko. Rosarito Andonegi, Begoña Andonegi, Lurdes Belategi eta Arantxa Berasaluze izan ziren, besteak beste, titulua atera eta euskarako eskolak ematen jardun zutenak.

• **Euskara irakasteko metodologia:** Asko hobetuko da garai honetan. Euskara ez dakitenentzat, Euskalduntzen 1,2 eta 3 metodoa erabiliko dute, apropos prestatutako ariketez gain; eta alfabetatzeko taldeetan, berriz, Alfabetatzen liburua izango dute lagungarri.

• **Diru-kontuak:** Aurrekontuak asko handituko dira. Irakasleak kobratzen hasiko dira, eta, ondorioz, ikasleek ordaindu egin beharko dute. Marian Expositok akorduan dauka 2.500 pezeta ordaintzen zituela hilean. Izaskun Belategi eta Itziar Agirregomezkorta irakasleek, berriz, gogoan daukate hilean 2.500 eta 3.000 pezeta inguru kobratzen zutela. Baina ikasleek ordaintzen zutenarekin ez zen nahikoa, eta, adibidez, 1980an Elgoibarko Udalak ikasleen matrikularen erdia ordaintzea erabaki zuen (1.500 pezeta ikasle bakoitzeko).

Aldaketa gehientsuenak Juan Mari Mendizabal gau-eskolan klaseak ematen hasi zenean eman ziren. Mendizabal Bizkaiko hiriburuan hasi zen euskarako klaseak ematen, eta Bilbon ezagutu zituen aldaketak ekarri zituen gurera.

Gau-eskola azkenetan dago, baina datorren astean segituko dugu.



## MARGA ZAPATA

UDAL EUSKALTEGIko IKASLE OHIA

*Marga Zapata euskaldun berria da eta euskaraz dakien familiako lehena izateaz harro dago. Denera 8 urte eman ditu euskaltegian eta EGA ateratzera ere iritsi da. "Txikitatik gustatu izan zait euskara, baina aita-amak kanpotarrak zirenez erronka pertsonala izan da ikastea".*

**• Zergatik hasi zinen euskara ikasten?**

Hemen bizi garelako. Alemaniara joango banintz alemaniera ikasi beharra edukiko nukeen moduan. Ez dakigunok euskara ikasten ez badugu, eta dakigunok erabiltzen ez badugu, aberastasun handi bat, altxor bat, galtzen ari gara.

**• Euskaltegitik kanpo laguntzarik izan al zenuen?**

Laguntzarik handiena liburuak irakurtzea izan zen. Ez nuen sekula pentsatuko euskaraz horrenbeste irakurri beharko nuenik. Euskaraz ikasteak erderaz hobeto moldatzen lagundu dit, batez ere, idatzizko lanetarako; eskutitzak, e.a

**• Irakasle onak al zenituen?**

Oso onak. Irteeretaz oroitzapen oso politak ditut. Arantzazuko barnetegian pasatako 15 egunak gogorrak izan ziren, oso intentsoak, egun osoa euskara gora eta behera, ametsetan ere ezin euskara burutik kendu. Orduantxe ulertu nuen euskara ikasten ari nintzela eta ikasiko nuela. Euskara obsesio bihurtu zen arren, ikasleekin anekdota politak ere baditut gogoan. Gero ez nuen EGA gainditu. Imajinazioa badut, baina ez naiz oso trebea idazten. Lehen urtean ditxosozko 92a izan zen gaia; olinpiadak, e.a. Hurrengo urteko idazlaneko gaia "Atzo amets egin nuen..." jarri zuten. Orain ikusiko duzue! pentsatu nuen. Aditz luzeenak, potentzialak, plurala... dena sartu nuen eta bigarrengoan gainditu nuen EGA.

**• Zer eman dizu euskarak?**

Euskaldunek esaten dutena ulertzeko aukera, gutxi al da?

Clinica Oftalmológica RECALDE Oftalmologi Klinika

www.clinicarecalde.com

MIOPIA LASER - KATARATA EBAKUNTZAK

Plaza Barria, 2 - 2º - 20600 EIBAR (Gipuzkoa) - Tfnoa.: 943 20 18 44

## [AKORDATZEN NAIZ]



### JOSE MARI BETELU

1932an jaioa

## «Emakumien askapena»

Emakumien egoeria zihero aldatu da: oiñ askoz libertade gehixago daukie. Ni horren alde nago, ondo ikusten dot. Bestiak errespetau bittartian, neri igual jata emakumia ala gizona izatia: “Hik nahi duan bezela ibilli hadi, baiña bestiak errespetauta”, hori da dana.

Lehen, gizonezkuak bakarrik egitten zaban lana etxetik kanpo, emakumiak etxian egoten ziran, etxeko lanak egin eta umiak zaintzen. Baiña Sigman, adibidez, emakume askok egitten zaban lana. Eskuak gizonezkuak baiño fiñauak dittue, eta piezak montatzeko hobeto moldatzen dira. Nik oso ondo ikusten dot emakumiak lana egittia. Emakume asko alargun geratu ziran, eta bizimodua aurrera etaratzeko, lana egin bihar zeben. Nere andriak ere lana egitten dau. Berak esan zidan lanian hastia nahi zabala, eta nik erabakixa bere esku laga naban.



## [GURE BERBAK]

### *Etxe bi*

*BI* zenbatzaillia izenaren ostian ipintzia mendebaldeko (Bizkaieraren eremuko) hizkeren ezaugarrixa da, eta esan bihar da Elgoibar ere harrapatzen dabala mendebaldiak ezaugarri honi dagokixonez behintzat.

Ugarixak dira gure guraso eta aittitta-amamen jardunian holako adibidiak (izenaren aurretik emandakuak ere bai, jakiña).

Gaztien artian, berriz ere, ez da oso ezaguna.

Gatozen gure herritar batzuen adibidiak irakurtzera:

*- Bixok, beste lagun bi laga, eta etxera hanka egin genduan febreruan.*

*- Gerratian egon zan haura soldau, hemezortzi urtekiñ egin ei zaban. Da lizentziauta etorri etxera, atzera. Harek urte bi pasau zittuan han.*

*- Bera, Pedro Unceta, ferreterixia sortu zaban gizona, hantxe dendan egoten zan beste bere seme bi, eta beste denpendienteren bat ere bai...*

*- Juten ziran barreño haundi birekin.*

*- (...) eta handik ordu bira edo hirura sartu ziran reketiak.*

*- Animalixak daukaguz: daukaguz behixak, zaldixak, bihor bi ...*

*- Han bazittuan bost neska ero, ta mutil bi.*

*- Bertatikan kaletikan erten gora, ta kilometro bi inguru daure.*

*- Bai, urte bi tta erdi in najittuan han ere.*

***Jesus Mari Makazaga***



**I. URTEURRENA**

2005eko martxoaren 21ean, 79 urte zituela hil zen

***Julio Antón Muñoz**en*

oroimenez urteurreneko meza izango da,

larunbatean, hilak 25, arratsaldeko 19:00etan Parrokian.

Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.



UDAL AURREKONTUAK 2006

# 16.462.306 EUROKO AURREKONTUA

*EAJ, EA eta PSE-EEren aldeko botoekin, eta PPren kontrako botoarekin onartu ditu Udalak aurtengo aurrekontuak. Guztira, 16.462.306 euroko (2.739.037.246 pezeta) aurrekontua izango du, beraz, Udalak 2006an. 2002. urtetik hona udal aurrekontua ia bikoiztu egin da, orduan 9.317.833 euroko aurrekontua zuen Udalak.*

*Aurtengo aurrekontuetatik % 27,03a inbertsioetarako erabiliko da. Gaurkoan, Udal aurrekontuak jaso ditugu bi orri hauetan. Bide batez, Marivi Agirregomezkorta alkatearekin hitz egin dugu aurrekontuei buruz, eta bestalde, Iñigo Arkauz PPko zinegotziak bere alderdiak ezezko botoa ematearen arrazoiak azaldu dizkigu.*



Udal aurrekontua hiru zatitan banatzen da: Udala, San Lazaro Egoitza eta Udal Kirol Patronatua. Ondorengoak dira 2006an bakoitzak izango duen diru kopurua:

- **Udala:** 14.344.089,52 euro (laz baino %3,16 gehiago)
- **San Lazaro Egoitza:** 1.274.308,29 euro (laz baino %14,83 gehiago)
- **Udal Kirol Patronatua:** 843.908,25 (laz baino %7,51 gehiago)

## UDALETXEKO SARRERAK

| | |
|---|---|
| Zerga zuzenak | 2.076.950,00 euro |
| Zeharkako zergak | 500.000,00 euro |
| Tasa eta bestelako sarrerak | 1.143.300,00 euro |
| Transferentzia arruntak | 6.261.760, 00 euro |
| Ondareetatik datozen diru sarrerak | 58.100,00 euro |
| Inbertsio errealen inorenganatzea | 943.854,73 euro |
| Kapitalaren transferentzia | 850.000,00 euro |
| Aktibo finantzarioak | 20.000 euro |
| Pasibo finantzarioak | 2.490.124,79 euro |
| **Guztira** | **14.344.089,52 euro** |

## UDALETXEKO GASTUAK

| | |
|---|---|
| Pertsonalaren ordainak | 2.981.248,12 euro |
| Ondasun arrunt eta zerbitzukoak | 4.052.027,50 euro |
| Finantza gastuak | 85.000 euro |
| Transferentzi arruntak | 2.145.447,81 euro |
| Inbertsio errealak | 3.876.910,06 euro |
| Kapital transferentziak | 673.456,03 euro |
| Aktibo finantzarioak | 20.000 euro |
| Pasibo finantzarioak | 510.000 euro |
| **Guztira** | **14.344.089,52 euro** |




## BARNE SAILA

| | |
|---|---|
| Gobernu organoak | 506.406,43 euro |
| Administrazio orokorra | 623.061,75 euro |
| Hiriko segurtasuna | 862.216,35 euro |
| **Guztira** | **1.991.684,1 euro** |

## HAZIENDA

| | |
|---|---|
| Zor publikoa | 525.000 euro |
| Gestio ekonomikoa | 515.577,36 euro |
| **Guztira** | **1.040.577,36 euro** |




## GAZTEDIA SAILA

| | |
|---|---|
| **Guztira** | **281.892,29 euro** |






MARIVI AGIRREGOMEZKORTA Alkatea

# «Gure programa kontuan hartuta egin ditugu aurrekontuak»

Marivi Agirregomezkortak esan digunez, oso gustura geratu dira 2006. urterako aurrekontuekin: "Iazko aurrekontuekin konparatuz, %3,17an igo da udaletxearen aurrekontua. Gure helburua, gure korporazioak aurkeztu zuen plana betetzea da, eta proiektu horiek gauzatzeko asmoarekin egin ditugu aurrekontuak". 2007ko maiatzean izango dira Udal Hauteskundeak, eta ordurako beraiek hasitako proiektuak amaituta uztea nahi dute.

Azpimarratzeko alorretan, etxez etxeko laguntza zerbitzua azpimarratu du alkateak: "Foru Aldundiarekin elkarlanean, etxez etxeko zerbitzua izugarri handitu dugu aurten, diru gehiago eskainiko diogu. Zerbitzu honen beharra daukaten herritarrak udaletxera etortzearekin nahikoa daukate, eta zerbitzu oso ona eskaintzen dugu".

Bestalde, herriko lorezaintzak buruhauste handiak eman dizkiela kontatu digu: "gure lehenengo urtean herriko berdegune guztiak apaintzeko asmoa geneukan, baina izugarri kostatu zaigu. Berdegune asko dago herrian, eta gehienak gainera aldapan daude, ezin dira makinak sartu eta lan handia dago. Azkenean egin dugu aurrekontua, onartu da eta proiektua aurrera doa. Mantentze lanetan 400.000 euro gastatuko ditugu urte honetan".

Honetaz gain, Plaza Handiari aurpegia garbitzeko asmoa daukatela aurreratu digu: "Eliza aurreko ingurunea berrituko dugu, irailean hasiko gara lan horrekin eta urte amaierarako bukatzea espero dugu".

Bukatzeko, Gaztetxea eta bere ingurune guztia nola gelditzen den ikusteko irrikaz dagoela aitortu digu: "lan txukuna egiten ari gara, oso ondo geldituko dela uste dut".




## ONGIZATE SAILA

| | |
|---|---|
| Gizarte babesa | 44.000 euro |
| Gizarte ekintza | 1.347.413,42 euro |
| Zaharren biltokia | 65.697,57 euro |
| Kaleen garbiketa eta hondakinen gestioa | 1.008.605,00 euro |
| Hilerria | 33.500 euro |
| Kontsumitzaileen eskubideen babesa | 19.250, 00 euro |
| Azoka | 20.975 euro |
| **Guztira** | **2.539.440,99 euro** |

## HIRIGINTZA SAILA

| | |
|---|---|
| Hirigintza | 2.714.584,24 euro |
| Bide publikoa | 3.075.294,30 euro |
| Nekazal garapena | 301.000,00 euro |
| **Guztira** | **6.090.878,54 euro** |




## KULTURA SAILA

| | |
|---|---|
| Hezkuntza | 237.309,28 euro |
| Kultura | 1.634.994,87 euro |
| Liburutegia | 127.086,03 euro |
| Euskara | 400.225,63 euro |
| **Guztira** | **2.399.615,81 euro** |






IÑIGO ARKAUZ PPko zinegotzia

# «Aurrekontuko inbertsioen atalarekin ados geunden, baina pare bat kontu ez zitzaizkigun gustatu»

Iñigo Arkauz PPko zinegotziak esan digunez, Hirigintza Saileko inbertsoen atalarekin ados zeuden, eta bere ustez gainera, inbertsio oso onak egingo dira aurten gure herrian. PPren ezezko botoa arrazoitzeko bi arrazoi eman dizkigu Arkauzek: "Batetik, gure alderdiak ezin du onartu Udalbideri ematen zaion dirua. EAJ eta EAk agintzen duten Udalek, diru kopuru bat ematen diote Udalbideri nazio eraikuntzarako, eta guk ez dugu ondo ikusten. Herritarron dirua herrian gastatu behar da. Euskal Herri mailan horrelakoak egitea nahi badute, egin dezatela, baina elgoibartarron dirua, herriarentzat izan dadila. 3.000 euro emango dituzte aurten, eta ez dute zehazten zertarako erabiliko den ere, opari bat dela dirudi. Bestalde, alderdi politikoen jardunerako lokal bat eskatu nuen. Guillermo Garatek udaletxe azpian dagoen lokal txiki bat eman zigun, baina hor ezin da lan egin. Bi mahai eta internetik gabeko ordenagailu bat besterik ez daukagu. Marivik 3 urte daramatza lokal bat emango digula esanez, eta ez du bere hitza bete. Udalbiderako dirua horretarako erabili zitekeela uste dut. Orain gainera, Ongizate Saileko bulegoak hutsik geldituko dira, eta hala ere, ez dute nire eskaera kontuan izan".

ETAk su-eten iraunkorra iragarri du aste honetan.

# Zer sentitu zenuen ETAren su-etenaren berri izan zenuenean?

**Mª TERESA DE LA CRUZ**
Etxekoandrea
58 urte



“Emozionatu egin nintzen. Ileak zuritzen hasi zaizkit eta ez nuen uste berri hau iritsiko zenik. Sorpresa handia hartu dut. Su-etena betirako izatea nahiko nuke.”

**AITOR TELLERIA**
Langabetua
30 urte



“Itxaropena, poztu egin nintzen. Ez nuen espero eta sekulako sorpresa izan da. Bide onetik goazela uste dut, pausu oso garrantzitsua izan da.”

**MARGARI IRIONDO**
Etxekoandrea
70 urte



“Ezin da esplikatu sentitu nuena. Azken egunotan entzun dugun guztiarekin, ez nuen espero. Ezin gara erabat fidatu, baina badaukat esperantza.”

**CRISTOBAL GUTIERREZ**
Tornugilea
25 urte



“Eman beharreko pausua zen. Hoberako izango dela suposatzen da, baina ikusi egin beharko da. Benetan honela dela ikusi arte itxaron behar da.”

# [ BAI ala EZ? ]

## Sinisten al duzu tenporetan?

**BAI %62**

“Arbasoek sinisten bazuten, guk zergatik ez? Naturan oinarritzen dira tenporak eta, gainera, ez da Euskal Herriko kontua bakarrik, beste leku batzutan ere kasu egiten diete.”

**EZ %38**

“Tenporek zer esaten duten mundu guztiak daki, baina asmatu duten ala ez inork ez du esaten. Tenporek asmatzen dutela frogatu arte behintzat, ez dut sinistuko.”

Datorren asterako.... Asteburu honetan ordubete aurreratuko dira erlojuak.
**Eragiten al dizu ordu aldaketak?**

**BARREN** (espazioa) **ERANTZUNA**
**7505** zenbakira
SMS kostua: 0'90 € + B.E.Z.-a.

Kresala HOTELA



Hurrengo hilean 2 pertsonentzako zirkuito bat zozketatuko dugu **Kresala hotelean.** Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!
www.aisiahoteles.com

## [ PROTAGONISTA ]



### AnaLidiaGonzalez

Ana Lidia Gonzalez elgoibartarrak Nafarroako Unibertsitateak eskaintzen duen Arkitektura Ikasketa Amaierako Saria irabazi du. 2004-2005 ikasturteko expediente akademiko eta proiektu onenak saritu dituzte, eta horien artean, 26 urteko neska elgoibartar hau izan da saritutako bat. Ana Lidiak 8 ohorezko matrikula eta 14 bikain dauzka bere expedientean, dudarik gabe, saritzeko moduko emaitzak dira. Denbora asko darama Ana Lidiak Elgoibartik kanpo, baina elgoibartarra sentitzen omen da. Gaur egun, Malagako enpresa inmobiliario batean dihardu lanean.

## [ NOTIZIA ]

# 200 musikarik hartuko dute parte Instrumentu Taldeen 5. Lehiaketan

Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroako 200 musikarik hartuko dute parte bihar, Elgoibar Hiria Instrumentu Taldeen 5. Lehiaketan. Parte hartzaileak 20 urtetik beherako musika ikasleak dira, hiru mailatan banatuta, hau da, Oinarrizko Maila I eta II, eta Maila Ertaina. 25 taldeetan banatuta, 15 musika eskolek hartuko dute parte. Elgoibartik 3 taldek hartuko dute parte: Oinarrizko Mailan, Nabaroneko Txatrirotripiak eta Txistu Brass & Company taldeak, eta Maila Ertainean Arko taldeak hartuko du parte. Lehiaketa goizeko 10:30ean hasiko da Musika Eskolako Auditorioan.



**3.210 euro saritan**

Parte hartzaileek daukaten onena emango dute sariren bat lortu ahal izateko. Guztira, 3.210 euro banatuko dira. Maila bakoitzean hiru sari emango dira, eta honetaz gain, epaimahaiak sari bereziak eskainiko ditu: instrumentu mota gehien dituen taldearentzat 200 euro, bakarlari onenari 200 euro eta konposizio onenari beste 200 euro.

## [ ZENBAKIA ]

**133.000**

2005. urtean 133.000 kontsulta burutu ziren Mendaroko Ospitalean. Azkenaldian badirudi txiki gelditu dela, baina urtetik urtera euren zerbitzua handituz doa. Guztira, 80.000 laguni ematen dio zerbitzua. Iaz, 30.000 larrialdi, 4.000 ebakuntza eta 600 erditze egin ziren ber-

## [ ARGAZKIA ]




Dotore jarri dituzte benetan, gure herriko errotondak. Kimu enpresako langileak lan eta lan aritu dira azken egunotan, eta emaitza begi bistakoa da. Udalak apustu garrantzitsua egin du herriko berdeguneak dotoretzeko eta nonbaitetik hasi behar denez, errotondetatik hasi dira. Bestalde, aipatu beharra dago negu hotzak agur esan digula aste honetan, martxoaren 20an, eta lorez jantzita sartu dela udaberria gure artera. Herriko errotonda, berdegune eta zuhaitz eta mendiak inoiz baino koloretsuago aurkitu ditugu.

# Lan munduan euskara sustatzeko plana jarri dute martxan eskualdeko Udalek




Elgoibar, Mendaro, Deba, Mutriku, Eibar eta Soraluzeko Udalek lan munduan euskararen erabilera sustatzeko plana aurkeztu zuten martitzenean, hilaren 21ean, Debegesak Eibarren duen egoitzan. Debabarrenako Udalek Emun aholkularitza Kooperatiba kontratatu dute plan hau gauzatzeko. Emun-ek euskararen erabilera normalizatzeko planak garatu eta gauzatzen ditu enpresa eta erakunde publikoetan. Aurkezpenean, bailarako udalerrietako alkateak, euskara teknikariak eta Emun Kooperatibako kideak elkartu ziren.

**Lan ildoak**

Emun eta Udaletako euskara zerbitzuek definitu dituzte dagoeneko, 2006. urterako lan ildoak. Hasteko, Udal teknikari, sindikatuei eta Udal agintariei zuzendutako prestakuntza saioak jarriko dira martxan, bestalde, bi koordinazio gune osatuko dira; Koordinazio Batzordea eta Jarraipen Batzordea, ondoren komunikazio plan bat gauzatuko da eta azkenik, enpresatara bisitak egingo dira. Debabarrena eskualdeko herri bakoitzean 10 enpresa bisitatuko dira euskara planak zer diren azaltzeko.




## Arnaldo Otegiren aldeko mobilizazioak izan dira herrian

Grande Marlasca epaileak deklaratzera deitu zuenetik, ez zaio herritarren babesik falta izan Arnaldo Otegiri. Atzo iluntzean eskualdeko manifestazioa egin zen Elgoibarren, eta gaur, egun osoan zehar, kartelada izan da Plaza Handian. Gaixo zegoela-eta, apirilaren 10era atzeratu zuten Otegiren deklarazioa, baina, epaileak gaurko data jarri zuen, sendagileak esandakoari kasurik egin gabe. Printzipioz bihar bukatuko du Otegik sendagileak jarritako tratamentua eta erabat sendatu arte, ez lukeela deklaratzera joan behar esan digu bere emazteak.

## [ MOTZ-MOTZIAN ]

### Trinitate jaietako V. Azoka Berezia

Ekainaren 10ean, zapatua, izango da aurtengo Trinitate Jaietako Azoka Berezia. Elgoibarko Udalak eta Debemen Elkarteak, barazki eta ganaduekin V. Azoka Berezi honetan parte hartu nahi duten baserritar guztiak gonbidatu nahi dituzte. Izena ematekо, Debemen Elkartera deitu behar da, datorren martxoaren 31a baino lehen. Telefonoa: 943 744067.

### Elgoibar bi erroberatan

Elgoibarko Herri Eskolako Guraso Taldeak antolatuta, Elgoibar bi erroberatan txirrindu irteera izango da domekan Plaza Handian izango da irteera 10:15ean, eta San Lorentzora egingo dute joan-etorria. Herritar guztiak daude gonbidatuta. Sari banaketaren ostean, salda eta txorizoa banatuko da. Antolatzaileek asteburuko ordu aldaketarekin kontuz ibiltzeko esan digute, irteera ordua errespetatu egindo da-eta.

### Emi Nogalesen margo erakusketa

Emi Nogales elgoibartarraren margo erakusketa inauguratuko da Kultur Etxean, datorren martxoaren 29an, eta bertan izango da ikusgai apirilaren 11ra arte. Emi Nogalesek pintura artistikoa lantzen du. Oraingoan akrilikoen erakusketa egingo du. Bisita orduak, astelehenetik zapatura 19:00-21:00 eta asteburu eta jaiegunetan 12:00-14:00.



*Juan Jose Goikoetxeak 3.000 ordutik gora pasa ditu azken 3 urteetan artxibategi ezberdinetan ikertzen eta Debabarrena ondo ezagutu duten pertsonak elkarrizketatzen. Lan eta pazientzia itzel honen emaitza: "Historia de una Gipuzkoa desconocida (Miscelaneas del Bajo Deba)" liburua izan da. "Arbasoengandik jasotako informazio guztia geure herriari itzultzera beharturik gaude, bakarrik haren zaindari garenez" Aita Barandiaranen esaldia bere egin du Deban bizi den Mendaroko seme honek.*

## JUAN JOSE GOIKOETXEA

HISTORIALARIA

# «Mendaroar batek Colonekin bidaiatu zuen Ameriketara 1492an»




**Zer aurkituko du zure liburura hurbiltzen denak?**

Gure jatorriaren jakinmina asetzea beste asmorik ez nuen. Debabarrenarekin zerikusia duten gertaera, kondaira eta pasadizoak batu ditut liburuan. Besteak beste, kostaldeko Santiago-bideko monastegien ibilbidea, nabigazioa Deba ibaian, bailarako marinel ezagunak, burdinolak, Arno mendiko bidelapurrak, Sasiolako Frantsesen aurkako gudua, debabarrenako pertsonaia ezagunak eta abizenen eta leinu-etxeen jatorria ikertu eta argitu ditut. Baita Erromatarrak Arnon izan zireneko hipotesia defendatu ere. 40 kilometroren bueltan horrenbeste historia eskura izan eta ezer ez jakitea penagarria da.

**Lehen edizioa (2.000 ale) agortu da jadanik. Marka itzela historia liburu batentzat. Zein da zure ustez arrakastaren arrazoia?**

Kultura pixka bat daukan jendea sustraien berri izateko jakinminez dago; abizenen jatorria, armarria, jaiolekuaren berri izateko irrikaz. Mendaro moduko herri txikia, gutxienez 22 abizenen sorlekua dela azaltzen dut. Ez da harritzekoa, Euskal Herriko bailararik zaharrenetakoa baita. Elgoibarren ezagunak diren abizen askok Mendaron dute jatorria: Agirre-Sarasua, Andonegi, Arriola, Barrenetxea, Etxabe, Igartua, Gabiola, Garagarza, Zabala, Lizaranzu...

**Urrunera iritsi dira liburuaren oihartzunak, ezta?**

Bai. Ingurukoez gain, Txile eta Argentinako euskal jatorri eta abizenekoak izugarri poztu dira arbasoen berri izateaz. Jesus Ma-

ria de Leizaola, lehendakaria izandakoaren alaba batek, berriz, aita biziko balitz izugarri poztuko litzatekeela bere arbasoak Lasturretik atera zirela jakiteaz aipatu zidan. Euskal Herriko unibertsitate guztietatik eta hainbat liburutegitatik ere eskatu didate liburua.

**Lastur berba Frantziatik datorrela defendatzen duzu?**

Frantzia hegoaldean, Carcassone inguruko Mendi Beltzetan dago Lastours (dorreak frantziarrez). Pedro II.ena, Aragoiko erregearen menpe zeuden lur hauek XIII. mendean. Kataroak bizi ziren bertan eta Aita Santuak herejetzat jo zituenean, gurutzatuen armada bidali zuen. Pedro II.ena kristaua zen arren, bere menpekoen alde borroka egin zuen eta Murateko gudan hil zuten 1213an. Ohitura zen soldaduak kanpora joaten zirenean itzuleran hango izenak ekartzea.

**Aportazio eta hipotesi berri bat baino gehiago plazaratzen dituzu.**

Marinel asko izan dira bailaran. Juan de la Plaza mendaroarrak, esaterako, Cristobal Colonek 1492an Amerikara egin zuen bidaian parte hartu zuen. Debako lau marinel ere joan ziren Colonekin. Alicia Gull historialaria 30 urtez aritu zen Colon lagundu zuten marinelen jatorria ikertzen, baina ez zuen Juan de la Plazaren daturik topatu. Nik, De la Plaza burdinolaren berri izan nuen. Bi anai haserretu eta negozioarekin nor geratu auzia izan zuten. Galtzaileak, minduta, Ameriketara joateko bidaian izena eman zuen. Colonen omenez Madrilen dagoen monumentuan ere ageri da bere izena. Harro nago ekarpen honetaz.

**Pertsonaia xelebre, maltzur edo interesgarriak bizi izan dira Debabarrenan.**

Halaxe da. Tomas de Cigaran (1585-1645) martiri frantziskotarra horietako bat da. Mexiko iparraldean, Zacatecasen, Concho indiarren geziek hil zuten. Sasiolako guduan (1794) frantziarren aurka nabarmendu zen Gaspar Jauregi gudaria ere aipatzen dut. General izatera iritsi zen gero. Guda hartan erabili zituzten kainoien munizioaren aztarnak etxean ditut gordeta. Gizatxarren atalean, Jose Maria Larrañaga hiltzaile odoltsua aipatu behar. Hainbat hilketa egin ostean 1826an hil zuten Bilbaon. Ez zuen damurik agertu. Begira bestela, zer nolako bertsoa idatzi zuen 23 urteko neska aizkoraz hil ostean:





Lastours



"Ogeita iru urteko, nezkatxa gaztia...
Etzen bada lastima ala tratatzia?
Aizkora triste batez muinak saltatzia
Aisa mereci nuen bertan urkatzia"

**[ «22 abizenen jatorria mendaron dago» ]**

**Arno mendiko bidelapurrak ere aipatzen dituzu...**

Eleberri bat idatzi liteke Arno Mendiko kontuekin. Arnoatetik hasi eta Kalbaixo gaineraino baserri bat bera ere ez dago, sei kilometroan. Bizimodua askoz gogorragoa zen garaian, lanik eta dirurik ezean, bidelapurrak ugaritu ziren paraje honetan, bertatik igarotzen baitziren Mutrikuko arraindunak Elgoibar eta Bergarara bidean asto-otarrak arrainez beteta. Itzuleran bidera irten eta irabazitako sosak lapurtzen zizkieten bidelapurrek. Ezagunenetako bat Txomin "Beltza" ondarrutarra izan zen. Bere burua arriskuan ikusi zuenean Ameriketara ihes egin zuen, baina han ere antzera segitu zuen. Argentinako Panpan zegoela, lan bila zebiltzan bi euskaldun lapurtzera zihoala haueri euskaraz "ointxe galduta gaitxuk" entzuteak salbatu zituen.

**Bizimodu gogorreko garaiak...**

Bai, zazpi umerekin baserri puntan alargun geratu zen emakumearen kasua argigarria da. Zerbait erosi behar zuenean bakarrik jaisten zen kalera. Behin Udaleko langileak joan zitzaizkion kontribuzio zerga kobratzera. "Paper zaharrekin neri ez etorri gero! Guk zorrik ez daukagu; goizean jaiki eta beti almorzatzen dugu artoa edo taloak esnearekin, eta bazkaldu; babak, azia eta sahieskia edo urdail zati bat noizean behin. Eta afaltzeko, soberakinak eta sagar edo gaztaina erreak. Etxekoarekin bizi gara gu. Hortaz, ez etorri niri papelik kobratzera eta eraman hartu dituzun lekura" erantzun zion etxekoandreak.

# GAZTIA NAIZ

## txApela bUruAN...




MUNICH - **ALEMANIA**

# Eliana Ballesteros

5 urte inguru daramatza Elgoibartik kanpo 26 urteko neska gazte honek. Eliana Ballesteros elgoibartarra, Munich-en (Alemania) bizi da gaur egun. Erasmus programarekin joan zen ikastera, eta bertan gelditu zen. Aseguru-etxe batean egiten du lan. Bakarrik bizi da apartamentu txiki batean, eta bertara joateko gonbitea luzatu digu. Momentuz gustura dago han, bihotza Elgoibarren dauka, baina bizimodua Munichen. Bere asmoa egunen baten hona bueltatzea da, baina ez daki egun hori noiz iritsiko den. Gaurkoan Alemanian zehar bidaiatuko dugu.

**Nolakoa da Alemania?**
Alemania ez da erreza. Hotza da, baina hori ez da txarrena, norberaren lekua topatzea da zailena. Alemania ez da lehen zena, baina oraindik potentzial handia dauka. Garestia eta oso garbia da, Munich, batez ere. Bayern (Baviera) Euskadi itsaso gabe bezalakoa da. Bertako hizkuntza propioa ere badute, bayerisch, tradizioz betetako lurraldea da.

**Zer da gehien gustatu zaizuna?**
Maila pertsonalean, balio dudana demostratzeko aukera izatea. Hemengoen bikoitza demostratu behar dut egunero nire lanean. Munich-en dagoen giro multikulturala ere oso gustuko dut: mundu guztiko jendea ezagutzeko aukera dago, erlijio, arraza eta hizkuntza ezberdinak daude kaleetan. Egunero ikasten da zerbait berria.

**Zu bisitatzera joango bagina, zer erakutsiko zeniguke?**
Maletak etxean utzi eta kalera joango ginateke berehala pasiara eder bat ematera. Englischen Garten, Brezl eta Radler (pika alemana) eskainiko nizkizueke. Marienplatzeko Fraunkirche eliza bere bi bobeda berdeekin bisitatu eta 5:00tan karrioia ikustera, Munichen ikurra da. Unibertsitate inguruan zerbait hartu, Pinakothek der Moderne Museo kontenporaneoko atean Txillidaren eskultura ikusi ondoren, Virktualienmarkt plazan mundu guztiko ezpezialitateak probatuko genituzke. Glockenspiel-en kafetxo bat hartu eta danzara! Hurrengo egunean Oktoberfest erakutsiko nizueke eta shopping egingo genuke, erregaluak erosi eta Elgoibarrera eramateko.





merezi duzu

Prestatu al dituzu Aste Santuko oporrak?

Zatoz gure Elgoibarko bulegora...

EROSKI / bidaiak
merezi duzu

ELGOIBAR
San Bartolome, 11
Tel. 943.74.46.56

# biluzik

sexologia txokoa



Eider Arzelus [Sexologoa]

## Zer da sexualitatea?

***Sexualitate hitza koitoarekin erlazionatzen du jende askok. Eider Arzelus Biluzik Sexologia Zerbitzuko arduradunak, sexu harremanak edukitzea baino askoz gehiago dela kontatu digu. Askok garrantziarik ematen ez dioten arren, sexualitatean komunikazioak sekulako garrantzia dauka. Edozein duda argitzeko, biluzikzerbitzua@yahoo.es***

**• Zer datorkigu burura sexualitatea hitza entzutean?**

Gehiengoari gauza bera pasatzen zaio burutik hitz honekin, gure ikasleei bezala, eta ez da harritzekoa, gizarteak sartu baitigu barruraino koitoa eta koitoak dakarren guztia.

**• Sexualitatea, koitoa baino gehiago da, beraz...**

Bai, sexualitatea = oinarrizko baloreak, plazerra, desira, sentimentuak, harremanak, eta komunikazioa. Azken hau oso garrantzitsua da.

**• Nola hobetu dezakegu komunikazioa?**

Liberman eta bere kolaboratzaileek hainbat pauta zehaztu zituzten pertsonen arteko komunikazioa hobetu ahal izateko. Nahiz eta hasiera batean nahiko artifizialak diruditen, denborarekin barneratzea lortzen dira eta beraz, espontaneoki automatizatzen dira:

1. Leku egokia aukeratzea. Adibidez: ez da oso egokia eztabaidak ohean izatea, edo lagunen aurrean.
2. Komunikatzea nahi denean, esfortzu eta atentzio guztia horretan zentratu behar dugu.
3. Bestearekiko komentario positibo batekin hastea.
4. Gustatzen ez zaiguna argi esatea.
5. Sentimenduak argi adieraztea.
6. Gai batetik bestera salto ez egitea.
7. Ahots tonua positiboa izatea, edo gutxienez, neutroa.
8. Garrantzitsua da mota hauetako komunikazioak irtenbide zehatzekin bukatzea eta bakoitzaren eginbeharrak argi edukitzea.

gazte informazioa

## BEKAK

**NEKAZARITZA EDOTA ABELTZAINTZA BEKAK**

Bizkaiko Foru Aldundiak Nekazaritza Garatzeko ustiategietan praktikak egiteko eta ustiategien kudeaketarako trebakuntzabekak ematen ditu. Baldintzak: Azken bi urteotan nekazaritza-ikasketak EAEn. Nekazaritzan bi urte baino gehiagoko eskarmentua. 150 irakastorduko trebakuntza-ikastaroak egin izana. Iraupena: ekainak 15-abenduak 15. Dirulaguntzak: 4.300 euro. Epea: apirilak 28. Informazioa: 94 4068000

**GARAPENERAKO LANKIDETZARAKO BEKAK**

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak 6 beka ematen ditu Garapenerako Lankidetzaren esparruan profesionalen prestakuntza bultzatzeko. Dirulaguntzak: 18.000 euro bakoitza. Iraupena: 12 hilabete. Epea: Apirilak 7. Infor.: 945 018001

## IKASTAROAK

**ZERBITZARIEN ETA WEB ORRIEN ADMINISTRATZAILE IKASTAROA DONOSTIAN**

Zubeldia Formación-ek antolatua (9:00-14:00). Baldintzak: LH II (informatika-adarra bada hobe), BBB, Batxilergoa edo informatika-aplikazioetako edota programazioetako ezagutza baliokideak izatea. Taldeak: Langabeak, minusbaliatuak, emakumeak, etorkinak, iraupen luzeko langabeak eta gazteak. Iraupena: martxoak 28-uztailak 18. Informazioa: 943 440129

**ERLAXAZIO MASAJEEN IKASTAROA BERGARAN**

Bergarako Udalak apirilaren 3tik ekainaren 26ra (astelehenetan: 17:00- 19:00) erlaxazio masajeen ikastaroa antolatu du. Epea: martxoak 25. Informazioa: 943 779158. Balioa: Bergaran erroldatuak: 15 euro. Erroldatu gabeak: 20 euro.

**KAPOEIRA IKASTAROA BERGARAN**

Bergarako Udalak antolatu du (ostiraletan: 19:00-21:00). Iraupena: apirilaren 7tik ekainaren 30era. Epea: martxoak 25. Informazioa: 943 779158. Balioa: erroldatuak 15 euro. Erroldatu gabeak: 20 euro

## LANA

**KONTABILITATEKO ERDI MAILAKO TEKNIKARI BAT SORALUZEKO UDALERAKO**

Oposizio-lehiaketa. Baldintzak: Unibertsitateko diplomatu izatea edo diplomaturarik ez duten karreretan lehen 3 mailak eginda izatea. 3. hizkuntza-eskakizuna. Epea: martxoak 31. Informaz.: 943 753043

## LEHIAKETAK

**IKERTZAILE GAZTEEN XIX. LEHIAKETA**

Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioa. Baldintzak: 15etik 20 urte izatea. Banaka edo lan-taldeetan egin daiteke. Zientzia eta Teknologia arloekin zerikusia duten oinarrizko ikerketak edo ikerketa aplikatuak, edo prototipoak egitea izango da. Epea: 2006-05-31. Informaz.: 91 3637674

**ELGOIBARKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA**
Kultur Etxean. Bigarren solairuan.
e-posta: elg.gzerbitzua@terra.es
943 741 461
5 Astearteetik ostiralera 16:00-19:00

BADATOR KIRIBIL MARTXOAK 31, BARIXAKUA

# LAGUN ETA IPUIN BERRIEKIN ITZULIKO DA KIRIBIL

*Kiribil, ia bi metro inguru dituen barraskilo begi irtena, ezaguna egin da Elgoibarko txikienen artean. Asko dira barixakuetan Kiribil noiz etorriko zain egoten diren herriko haurrak. Bada, egun hori iritsi da: martxoaren 31n, datorren barixakuan hasiko da Kiribilka egitasmoaren hirugarren ikasturtea. Martxoaren 31n hasi eta ekainaren 16a arte, zortzi ostiral arratsaldetan izango da Kiribil gure artean. Ekainaren 16an berriro ere agur esango digu iraila arte.*

Kiribilka egitasmoa 2-6 urteko haurrei eta hauen gurasoei zuzenduta dago. Egitasmo hau 2004. urteko udaberrian jarri zuen martxan Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak Udalaren laguntzarekin, eta aurtengoa, 3.urtea izango da. Orain arte, 24 saio burutu dituzte eta aurten, beste 12 saio egiteko asmoa dute.

Saio hauetan haurrei eta gurasoei eskainiriko ipuin, kanta, jolas, dantza eta antzekoak egiten dituzte. Honez gain, tarteka, Kultur ikuskizunak ere eskaintzen dituzte: antzerkia, pailazoak, txotxongiloak, zirkoa...

### EUSKAL MITOLOGIAKO PERTSONAIAK

Aurten, gainera, berrikuntzak dakartza Kiribilek besapean. Maskor berri koloretsua estreinatzeaz batera, ipuinetako pertsonaia berriak izango ditu lagun hainbat saiotan. Euskal ipuindegiko pertsonaia ezagunek bisitatuko dute Kiribil takian-potian. Besteak beste; Makilakixki, Sorgin gaiztoa, Galtzagorriak... Antolatzaileen asmoa, Euskal Herriko mitologia eta kondairetatik ateratako pertsonaiak haur eta gurasoei ezagutaraztea da, eta hauen istorioak entzunaz gozatzea, noski. Horregatik, aurten garrantzi handia hartuko dute ipuinen kontaketek, txotxongiloek eta antzekoek.

Honez gain, beti bezala, euskal abestiak eta euskarazko abestiak ezagutzeko eta ikasteko aukera izango dute Plaza Handira hurbiltzen diren haur eta gurasoek, eta nola ez, jolas, dantza eta eskulanak egiteko aukera ere izango dute.

Berrikuntzekin jarraituz, laguntzaile berriak izango ditu aurten Kiribilek. Lau begirale, gogoz eta indartsu datozen lau neska gazteren laguntza jasoko du Kiribilek. Ez da kexatuko, beraz, eta ez du motel ibiltzeko aitzakiarik izango.

Nerea Larrañaga, egitasmoaren arduradunak adierazi digunez, "tarte hau aprobetxatu nahi genuke orain arte gurekin lanean jardun diren begiraleei eskerrak emateko, oso lan ona egin baitute".

Orain arte egitasmoak izandako erantzunarekin pozik daudela gaineratu digu Larrañagak: "momentu politak bizi izan ditugu Plaza Haundian eta guretzat polita izan da haur eta gurasoak kantuan, dantzan eta jolasean ikustea. Hala ere, aipatu nahi dugu gurasoei asko kostatzen zaiela parte hartzea. Lotsak bazterrean laga eta arratsalde hauetan umeek egiten duten moduan disfrutatzera animatu nahi ditugu".

Kiribil pertsonaia ezaguna egin dela ere azaldu digu, "Asko dira ostiraletan Kiribilen zain egon diren haurrak. Adibidez, badira Kiribil Karakaten edo Kalamuan ikusi dutela esan diguten haurrak eta baita berarekin berriketan aritu direla esan digunik ere".







# KIRIBILi Elkarrizketa

Noiz etorriko zara berriz Elgoibarrera Kiribil? Datorren ostiralean, martxoaren 31n, ikusiko nauzue berriz Plaza Handian. Haurrak irrifartsu eta jolasean ikustea da gehien gustatzen zaidana eta horretan saiatuko naiz. Nire lagunak ez dabiltza oker saltsa guztietako perrexila, edo barraskiloa, naizela esaten didatenean.

Eta zuk, non ikasi zenuen euskaraz berba egiten? Elgoibar inguratzen duten mendi eta basoetan bizi naiz ni eta bertara joaten diren haurrei entzunaz ikasi dut euskaraz. Asko gustatzen zait euskara eta haur eta guraso guztiek euskaraz jolastu eta kanta dezaten desio dut.

Aurten lagun berriak aurkeztuko dizkiguzu, ezta? Bai. Nire lagun zaharrak dira, baina gaur egungo gaztetxoek behar bezala ezagutzen ez dituzuenez, noizean behin Plaza Handira ekarriko ditut Makilakixki, Galtzagorriak, e.a. Ikusiko duzue zeinen jatorrak diren eta nolako istorio harrigarriak kontatuko dizkizueten.

Aizu Kiribil! bitxikeria bat: zer jaten duzu horren handia hasteko? Zer jaten dudan? Denetarik pixka bat, baina, batez ere, barazkiak eta entsaladak ditut gogoko. Letxuga bat ikusi orduko begiak bere lekutik ateratzen zaizkit.

## KIRIBILKA EGITASMOAREN EGUTEGIA

- Martxoa 31
- Apirila 7 – 28
- Maiatza 5 – 12 –26
- Ekaina 2 - 16
- Iraila 15 – 22 - 29
- Urria 6

OHARRA:
Eguraldi txarra egiten duenean, saioak hurrengo ostiralera atzeratuko dira.

NOIZ HASI:
Martxoaren 31n, arratsaldeko 17:30ean

NON:
Plaza Haundian

## ARKAITZ EGAÑA HARRI-JASOTZAILEA

# «Azken aldian harri-jasotzea berpizten ari dela dirudi»





*Aita trontzalaria izanagatik, osaba harri-jasotzailearen bidea jarraitu du Arkaitz Egaña, "Mintxeta III"ak. Elgoibarko harri-jasotzaile bakarra da une honetan 22 urteko gaztea. San Roke bailarako Mintxeta baserrian egin dugu zita eta harriz inguratuta berba egin dugu harrien kirolaz.*

**► Noiztik harrijasotzen?**

Jendaurreko lehen saioa 8 bat urterekin egin nuen San Rokeko jaietan, 20 kiloko egurrezko harria altxatuz. Akorduan ditut auzotarren aurrera ateratzeko pasa nituen nerbioak eta lotsa. Harri-jasotzen hastea normalena zen nire kasuan, besterik ez baitut ezagutu etxean. Trontzan egin dut, baina inoiz ez dut afan hori eduki, harri-jasotzeko afizioa izan dut txikitatik.

**► Hobekien moldatzen zaren harria?**

Harri txikiekin, 100 kilokoekin. Zilindroa izan liteke teknikoki altxatzeko errazena, baina hobekien bolarekin ibili naiz. Zailena, eta niretzat aldrebesena ere bai, kubikoa izan da betidanik.

**► Zein dira zure markak?**

Mallabiko Txapelketan egin nituen altxaldirik gehien; 41 aldiz zilindroa eta 30 aldiz bola, 5 minutuko txandetan.

**► Harri-jasotzen aritzeko gorpuzkera aproposa al duzu?**

Harri handiekin aritzeko gorputzik eta pisurik ez daukat. Harri txikiekin ibiltzeko ere kilo batzuk hartzea, sendotzea, komeni zait. Kiloak baina, muskuluetan irabazi behar dira, ez koipean. Altuegia izatea ere ez da komeni, eta aukeran altuegia naiz (1,84 neurtu eta 83 kilo pisatzen ditu). Kiloena oraindik konpondu liteke.

**► Zer entrenamendu jarraitzen duzu?**

Neguan, muskuluak indartu eta pisua hartzeko gimnasioko lana egiten dut. Aste Santura arte gutxi ikutzen dut harria. Erresistentzia lantzeko korrika egiten dut, izan ere, 100 kiloko harriarekin 5 minutuko txandak luze egiten dira. Garrantzitsuena indarra dela pentsa dezakete askok, eta harri handiekin hala da, baina txikietan %50a indarra eta %50a erresistentzia da. Teknika ere funtzeskoa da, behar bezala harriari kolpe egin ezean segituan ahitzen baita indarra. Apostua tarteko dela etorri izan dira demaseko ixkuak, baina 100 kilokoa altxa ezinda geratu dira. Klaro! tentazioa ematen du, honek horren erraz altxa badu... Indarra bideratzen jakin behar da, ordea.

**► Herriz herri ere ibiltzen zara.**

Bai, herri eta auzoetako jaietan erakustaldiak... Bai, herri eta auzoetako jaietan ezibizioak eskainiz. Beldurgarri ez, baina urte bukaeran saio batzuk pilatzen ditugu. Gero eta jende gutxiago joaten da herri kirolak ikustera, baina auzo denek jarri nahi izaten dituzte jaien egitarauan. Bilbao aldean, esaterako, auzo mordoa daude eta ia guztietan egiten dira.

**► Gazte asko al zabiltzate?**

Denok ezagutzen dugu elkar. Azken aldian, aizkorarekin gertatu den moduan, telebistaren eraginagatik edo, harri-jasotzea berpizten ari dela dirudi. Hala ere, normalena, familiako edo inguruko norbait harri-jasotzen aritzen delako hastea da. Etxean holakorik ezagutu gabe gutxi dira hasten direnak, eta probatuz gero, gutxi dira jarraitzen dutenak; gogorra da.

> **«Harri handiekin aritzeko gorputzik eta pisurik ez daukat»**

IRONMAN

# Bere mailako 4. postuan amaitu zuen Iñaki Kondek Hegoafrikako Ironman-a



Iñaki Konde triatleta elgoibartarrak Porth Elizabeth (Hegoafrika) hirian jokatu zen "Ironman South Africa" kirol proba gogorrean parte hartu zuen joan zen domekan, hilaren 19an. Hamar ordu eta 42 minutuan jardun zuen jarraian kirola eginez eta bere mailako (55 eta 60 urte bitartekoak) 4. postuan amaitu zuen; 3,8 km. igerian, 180 km. bizikletan eta 42,195 metro antxintxika egin ostean. Distantzia luzeko Nazioarteko Ironman zirkuituko proban 1.400 atleta inguruk parte hartu zuten eta erdi aldean amaitu zuen. Azken ordura arte parte hartu edo ez zalantzan izan zela aitortu digu Kondek, "azken hilabetea gaixorik eman dut eta behar bezala entrenatu gabe joan nintzen. Hegoafrikan nengoela antolakuntzako medikuek aztertu ninduten eta infekzio edo gripe antzekoa nuela esan zidaten. Parte ez hartzeko gomendatu zidaten arren, haraino iritsita, arriskatzea erabaki nuen". Proba amaitzeaz gustura egon arren ez da asetuta etxeratu, "amaitzea baino aspirazio handiagoak nituen, Hawaii-ko Ironman-erako sailkatzea, alegia, gaixotasunak asmo guztiak zapuztu dizkit, ordea. Indarrak xurgatzeaz gain, moralez ere baxu joan nintzen, eta horrelako proba batean dena eta gehiago behar da".

## San Roken hasiko da Gipuzkoako Hiru Txirlo Bolo Txapelketa



Bihar, hilak 25, hasiko da Gipuzkoako 37. Hiru Txirlo Bolo Txapelketa San Rokeko bolatokian. Urtero bezala, arratsaldeko 17:00etan hasiko da bolo saioa. Aurten, 10 saio izango ditu txapelketak, hauetatik hiru Elgoibarko bolatokietan. Gainontzeko biak; maiatzaren 13an San Migelen eta maiatzaren 27an San Pedron izango dira. Deba, Soraluze, Eibar, Elgeta eta Azkoitiko bolatokietan ere izango dira saioak. Lehen jaurtialdiko irabazleak 65 euro poltsikoratuko ditu eta 50 euro bigarren sailkatuak.

## Angel Lopezek Espainiako Kros Txapelketan parte hartuko du

Mintxeta Atletismo Taldeko Angel Mari Lopez antxintxikariak Espainiako Kros Txapelketan parte hartuko du bihar, hilak 25. Afrikar kontinentean dagoen Melilla hirian jokatuko da txapelketa, eta bertan, Espainiako atletarik onenen aurka lehiatuko da elgoibartarra. Zorterik onena opa diogu.

## Emakumeentzako autodenfetsa ikastaroa

Emakumeentzako autodefentsa ikastaroa antolatu du Elgoibarko Gazte Asanbladak. Adin guztietako emakumeei zuzendutako ikastaroa apirilaren 1ean, zapatuan, izango da Kiroldegian, goizeko 10:00etatik aurrera eta egun guztian zehar. Izena eman nahi dutenek honako telefonora dei egin beharko dute: 636 27 56 39.

## [ EMAITZAK ]

### FUTBOLA

Lagun Onak 2 - **Haundi 0 (3. maila)**
Elgoibar 0 - Lagun Onak **2 (1. erreg.)**
Elgoibar 1 - San Martin **0 (1. erreg.)**
Elgoibar 2 - Urola **2 (1. erreg.)**
Zarautz 1 - Elgoibar **4 (Inf. A)**
Elgoibar 1 - Sporting Herrera **1 (Inf. B)**
Aloña Mendi 4 - Elgoibar **0 (Neskak)**
Elgoibar 2 - Ordizia **0 (Neskak F-8)**

### ESKUBALOIA

Tecnifuelle 26 - Zarautz 23 **(Senior mut.)**
Pneumax 26 - Aitxuri 16 **(Jub. mut.)**
Urnobitza 26 - Arrate 19 **(Kad. mut.)**
Urola 43 - ANTT Softlan 18 **(Sen. mut.)**
Urdaibai 24 - Lojantzi 29 **(Kad. mut.)**
Cometel 18 - Leizaran 16 **(Jub. nesk.)**
Pagoaga 21 - Arrate 17 **(Kad nesk.)**
Olalsa 31 - Pulpo 10 **(Inf. nesk.)**
Zarautz 15 - Aterpe 16 **(Inf. nesk.)**

### ESKU PILOTA

Udaberri Txapelketa

**Finalaurdenak**

Lagunak (Liz./Arriz.) 22 - Lizardi 10 **(2. jub.)**
Lagunak (Atxotegi/Portu) 22 - Elordi 5 **(1. jub.)**
Lagunak (Ula./Iri.) 22 - Beloki 9 **(2. nag.)**

Matienako Torneoa

Portu 16 - Mendizabal 22 **(Jub.)**

## [ AGENDA ]

### FUTBOLA Mintxetan

**Zapatua, 11**
12:30 Elgoibar – Real Sociedad **(Inf. A)**
16:30 Haundi – Aurrera Vitoria (3. maila)
Domekia, 5
10:30 Elgoibar – Hernani **(Inf. B)**
12:30 Elgoibar – Zalla **(Jub.)**

### ESKUBALOIA Kiroldegian

**Zapatua, 11**
09:00 Aterpe – Mutrikuarrak **(Inf. nesk.)**
17:30 Lojantzi – Urola **(Sen. nesk.)**
19:00 Urnobitza – Urola **(Kad. mut.)**
**Domekia, 12**
10:00 Tecnomeca – Jauja **(Kad. mut.)**
11:30 ANTT Softlan – Leizaran **(Senior mut.)**

# Merkatua

## [ ETXEBIZITZAK ]

**SALMENTA**

- Pisua salgai Bernardo Ezenarro kalean. 2 logela, garajea eta trasteroa. Berria. Prezio interesgarria. **606 71 56 77**
- Etxea salgai Errosario kalean. Guztiz berritua. 168.200 euro (28 milioi pezeta). **943 748448/636571111**
- Etxea dalgai Bernardo Ezenarro kalean. 3 logela, trasteroa, komuna, sukaldea eta egongela. **677 43 71 12**
- Errosario kalean etxebizitza salgai. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, despentsa eta ganbara. **943 74 42 05**
- Pedro Muguruza kalean etxea alokatzen dut. **636 27 72 82 (18:00-21:00)**
- Etxea salgai erdialdean. Bizitzera sartzeko moduan. 71m$^2$ **943 74 3716/660 88 40 60 (Mancebo)**
- Atikoa salgai Deban. Logela bat, sukaldea jantzita, su bajua, igogailua. Bizitzera sartzeko moduan. **670 251 263**

**ALOKAIRUA**

- Apartamentua alokatzen da Torreviejan. Igerilekuarekin eta hondartzatik 800 metrora. Hiri erdigunean. **628 58 45 35**
- Logela bat alokatzen da. **635 20 64 36 (10:30-12:30 edo 19:00etatik aurrera)**
- Pisua osatzeko pertsona bat behar da. **610 45 85 52**
- Logela alokatzen da, komunarekin. **618 81 39 70**
- Pisua alokatzenda Conilen (Cadiz), Bateles hondartza ondoan. Jantzita eta aire egokituarekin. **680 44 26 68**
- Mutila behar dut pisua alokatzeko. Sukalde eta logelarekin. San Antolin 6, 3.ezk. **645 70 77 00**
- Gizonezkoa etxea konpartitzeko prest Elgoibarren. **697 78 52 78**
- Pisua hartuko nuke alokairuan. **606 61 28 34**

## [ GARAJE eta LOKALAK ]

- Garaje marraduna alokatzen da Pista Beltzean. **943 74 43 98/943 74 00 70**
- Garaje itxia alokatzen da Trenbide kalean, 17-19 zenbakian. **943 74 24 50**
- Urasandi kalean, Altzari almazenaren azpian, garaje marraduna salgai. **943 74 24 56**
- Leku Ederren garaje itxia alokatzen da, 3. solairuan. **943742034/639353331**
- Marradun garajea alokatzen da Ametsa parean. **615 78 78 57**
- Garaje marraduna alokatzen da Pista Beltzean. Bi auto kabitzen dira. 60 euro. **699 81 25 66**
- Marradun garajea salgai Santa Ana 6an, Ametsa parean. **615 70 78 57**
- Mendaron garaje itxia alokatzen da. Garagartzan. 40m$^2$. **620 036 738**

## [ AUTOAK ]

- BMW 320D autoa salgai.136 zaldi. SS-BD. Egoera oso onean. **639 65 40 27**

## [ BESTELAKOAK ]

- Bizikletarako erruberak salgai. Mavik Cosmic Carbon. 2005. urtea. 850 euro. **943 03 37 24**
- Lur saila erosiko nuke bide edo errepide batetik gertu. Hektarea bat inguru. **661 181 622**

## OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira.
Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 € eta alokairua 8 € . Autoak 8 € . Eta bestelakoak 5 € . Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

## LANA

**ESKAERA**

- Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. **636362251/646235195**
- Mutila asteburuetan lan egiteko prest. **686 475 563**
- Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. **943 53 12 70**
- Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. **639 88 20 04**
- Emakumea lanerako prest, interna edo externa moduan. **943 53 15 53**
- Neska garbiketa lanak egin, nagusiak edo haurrak zaintzeko prest. **680 327 674**
- Neska lanerako prest. **676 444 171**
- Emakume gaztea tailarrean edo garbiketa lanak egiteko prest. **628 684 435**
- Mutila peoi bezala lan egiteko prest. **943 53 15 53/ 678 342 297**
- 4 neska propaganda banatzeko prest. **610 95 34 34**
- Emakumea garbiketa lanetarako prest. **639 42 34 93**
- Emakumea garbiketa lanetarako, nagusiak edo umeak zaintzeko prest. **606 64 22 84**
- Mutila kamarero, tailerreko laguntzaile edo garbiketarako prest. **660 92 75 66**
- Emakumea garbiketa lanetarako, nagusiak edo umeak zaintzeko prest. **660 92 75 66**
- Neska umeak edo adinekoak zaindu, garbiketa lanak egin edo sukaldari laguntzaile izateko prest. **600 28 27 93**
- Emakumea pertsona nagusiak zaindu edo interna moduan lan egiteko prest. Informeak ditut eta bertakoa naiz. **620 674 034**
- Gizona pintore edo peoi lanak egiteko prest. **656 61 28 34**

**ESKAINTZA**

- Asteburuetarako kamarera behar da. **695 72 37 36**
- Sukaldari eta kamareroa behar da. Esperientzia. **943 74 12 30**
- Kamareroa eta sukaldari laguntzailea behar dira asteburuetan lan egiteko. **943 03 01 50**
- Basko Rent enpresak kotxeak garbitzeko pertsona bat behar du. **902 10 32 87**
- Begiraleak behar dira 7 eta 14 urte bitarteko haurrentzat, uztailean ingeles udalekuetarako. **943 71 20 55**
- Ametsa tabernarako kamarera behar da. Ostiral, larunbat eta igandetarako. **943531035**
- Esperientziadun estetiziena behar da Elgoibarren. **(21:30etik aurrera) 653 701 647**

## ABISUAK

- Txaleko bat aurkitu dut San Bartolome kalean. Jabeak deitu dezala. **943 74 29 38**
- Haizeak txamarra berdea eraman dit balkoitik, San Roke kalean. **943 74 44 45**
- Karitasek jaioberrientzako jantziak eta kotxe kapota behar ditu. **943 74 15 09**
- Argazki kamera digitala galdu nuen otsailaren 25ean Plaza Handian. Argazkiak oso garrantzitsuak dira. Bidali mesedez mgguede@yahoo.es helbidera. **625 70 90 17**
- Argazki kamera digitala galdu nuen inauterietako zapatuan. Pentax markakoa da. **628 58 45 35**

# [ZORIONAK]



Zorionak **Malena** martxoaren 22an urteak egin zenituelako.. Guraso eta anaia Jonen partez.



Zorionak **Ainara** lau urte egin zenituelako. Etxekoen partez.



Zorionak **Julen** hilaren 29an 3 urte egingo dituzulako. Familiakoen eta bereziki, Aneren partez.



Zorionak mutil haundi domekan 8 urte egingo dituzulako. Igor, Esther eta familiakoen partez.



Zorionak **Unax** zure lehenengo urtebetetzean familiako guztien partez. Muxu handi bat.



Zorionak **Beñat** atzo urtebete egin zenuelako. Familiakoen eta bereziki, aitxitxa eta amamen partez.



Zorionak **Verónica** hilaren 22an 21 urte egin zenituelako. Alaitz eta lokalekoen partez.



San Josetako lore bertsolaria, ona izan al zen 10. saria? Hurrengoan ere, zuk segi harira.



Zorionak **Andrea** eta **Nora** gaur, azkenean, hainbeste esperotako 4 urteak egin dituzuelako. Muxu handiak guztion partez.



Iritsi da zuen udaberria! Zaindu elkar eta biok emetzen joango diren kimu berriak. Zorionak! Familiakoen, eta zorionak **Bidatz**, Ikastolako 5.Bkoen partez.



Zorionak **Pedro** eta **Adriana** bihar 3 urte beteko dituzuelako. Familiakoen eta anaia Alejandroren partez.



Zorionak **Nahikare** eta **Lorea** 10 eta 5 urte egin dituzuelako. Familiako guztien partez.



Zorionak **Endika** eta amama **Dolores** martxoaren 28an eta 30ean urteak egingo dituzuelako. Familiakoen partez.


**ELGOIBARKO BH INSTITUTUA**

LANGABETUEI ZUZENDUTAKO IKASTAROAK DOHAN

| Ikastaroa | Orduak |
| --- | --- |
| Administrari Komertziala | 800 |
| Multimedia Teknikaria | 210 |
| Excel eta Access | 100 |
| Internet eta Web Orrialdien Diseinu | 100 |
| Access eta Internet | 100 |
| PC Mantenimend. Erabiltzaileentzat | 45 |
| Outlook eta Internet | 60 |
| Excel eta Internet | 100 |

Informazioa eta Izen-ematea:
Tel.: 943 74 80 19
Helbidea: Arregitorre, 2
20870 Elgoibar
(Susana)
E-posta:
prestakuntza@elgoibarbhi.net

## [ OKINDEGIA ]




26 igandea EIZAGIRRE

## [ FARMAZIAK ]

**GUARDIA** 24 ORDUZ

| | |
|---|---|
| 24 | Etxeberria *(Errosario)* |
| 25 | Ibañez |
| | *(* Goizez Yudego)* |
| 26 | Ibañez |
| 27 | Bidasolo |
| 28 | Etxeberria *(Santa Ana)* |
| 29 | Fernandez |
| 30 | Yudego |
| 31 | Zabaleta |

** Beti dago guardiako farmazia Eibar/Ermua zonaldean.*

**KANPOKO FARMAZIAK**

**IBAÑEZ**
Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

**FERNANDEZ**
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

**ZABALETA**
Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84

## [ TELEFONOAK ]

| **OSASUNA** | |
|---|---|
| Anbulatorioa | 943 03 26 10 |
| Larrialdiak | 943 46 11 11 |
| Planning-a | 943 74 29 50 |
| Alkoholiko Anonimoak | 943 74 03 85 |
| D.Y.A (anbulantzia) | 943 46 46 22 |
| Gurutze Gorria | 943 74 38 64 |
| Mendaroko Ospitalea | 943 03 28 00 |
| Odol Emaileak | 943 74 39 36 |

| **UDALA** | |
|---|---|
| Euskara Zerbitzua | 943 74 43 66 |
| Kultura Zerbitzua | 943 74 21 58 |
| Hirigintza | 943 74 43 84 |
| Epaitegia | 943 74 16 30 |
| Haziena | 943 74 44 14 |
| Mendaroko Udala | 943 03 32 82 |
| Ongizate zerbitzua | 943 74 10 08 |
| Udaletxea | 943 74 10 50 |
| Udaltzaingoa | 943 74 13 94 |
| Debemen | 943 74 40 67 |

| **GARRAIOAK** | |
|---|---|
| Eusko Trenbideak | 943 74 04 42 |
| PESA (Eibar) | 902 10 12 10 |
| Taxi geltokia | 943 74 08 98 |
| Bizkaibus | 902 222 265 |

| **BESTELAKOAK** | |
|---|---|
| BARREN astekaria | 943 74 41 12 |
| Elgoibarko Izarra | 943 74 16 26 |
| Kiroldegia | 943 74 44 15 |
| Kontsumo Bulegoa | 943 74 30 88 |
| Liburutegia | 943 74 35 25 |
| Musika Eskola | 943 74 21 45 |
| Mintxeta | 943 74 43 15 |
| Parrokia | 943 74 08 42 |
| Postetxea | 943 74 15 47 |
| Gazte Informazioa | 943 74 14 61 |
| KZ gunea | 943 74 88 28 |

| **ADINEKOEN ETXEAK** | |
|---|---|
| San Lazaro Egoitza | 943 74 02 96 |
| Zaharren Biltokia | 943 74 05 26 |
| Eguneko Zentroa | 943 74 45 65 |

| **IKASTETXEAK** | |
|---|---|
| Haur Eskola | 943 74 21 41 |
| HHI (EPA) | 943 74 08 80 |
| Herri Eskola | 943 74 08 79 |
| I.M.H. | 943 74 41 32 |
| Institutua • Arreiturre | 943 74 80 19 |
| •Ezenarro (Meka) | 943 74 80 19 |
| Ikastola | 943 74 44 41 |
| Pilar Ikastetxea | 943 74 13 31 |

**ELGOIBAR - DONOSTIA**
Astegunak:
7:10, 7:40, 8:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 14:40, 15:00, 15:40, 16:00, 18:40, 19:05, 20:00, 20:40
Larunbatak:
7:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 15:00, 18:40, 20:00
Igandeak eta jaiegunak:
9:40, 10:30, 13:40, 18:40, 20:00, 20:40
***Pesa: 902 10 12 10***

**DONOSTIA - ELGOIBAR**
Astegunak:
6:15, 7:00, 8:15, 9:30, 12:00, 12:30, 13:30, 14:30, 15:00, 17:30, 18:30, 19:30, 20:45.
Larunbatak:
8:15, 12:00, 12:30, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45
Igandeak eta jaiegunak:
12:30, 17:30, 19:30, 20:45.
***PESA: 902 10 12 10***

**ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA**
Astegunak:
6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45... ordu erdika. Azkena; 20:45.
Asteburuak eta jaiegunak:
7:15ean hasita, orduka. Azkena; 20:15.
***EUSKOTREN: 943 74 04 42***

**MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR**
Astegunak:
6:55ean hasita, ordi erdiro. Azkena 21:55.
Asteburua eta jaiegunak:
7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.
***EUSKOTREN: 943 74 04 42***

**LARUNBAT GAUEKO ZERBITZUAK**
***EUSKOTREN: 943 74 04 42***

**ELGOIBAR-DEBA**
1:05, 2:35, 4:35, 6:05

**DEBA-ELGOIBAR**
12:10, 1:55, 3:40, 5:25

**ELGOIBAR-EIBAR**
12:25, 2:10, 3:55, 5:40

**EIBAR-ELGOIBAR**
1:00, 2:30, 4:30, 6:00

## Ordu aldaketa larunbatean

Ordu aldaketa egin beharko da, bihar, larunbatetik igandera bitarteko gauean. Martxoaren 25ean, beraz, ordubete aurreratuko ditugu erlojuak. Honela, goizaldeko 2:00etan 3:00ak izango dira.




## SINOPSIAK

**«Orgullo y prejuic**



## [ 25 ZAPATUA ]

**10:30 ELGOIBARKO HERRIA INSTRUMENTU TALDEEN V. LEHIAKETA**
Musika Eskolako auditorioan
Antolatzailea: Inazio Bereziartua Musika Eskola

**17:00 GIPUZKOAKO XXXVII. HIRU TXIRLO BOLO TXAPELKETA**
San Rokeko bolatokian

## [ 26 DOMEKIA ]

**10:15 ELGOIBAR BI ERROBERATAN**
Txirrindu irteera San Lorentzora
Antolatzailea: Herri Eskolako Guraso Taldea
Irteera Plaza Handian

## [ 29 EGUAZTENA ]

**19:00 EMILIA NOGALESEN MARGO ERAKUSKETA**
Kultur Etxeko erakusketa gelan
Apirilaren 11ra arte
Astelehenetik zapatura: 19:00-21:00
Jaiegunetan: 12:00-14:00

**19:00 HITZALDIA**
Gaia: Euskal Herritarron erabakia errespetatu
Kultur Etxeko hitzaldi gelan
Antolatzailea: Ezker Abertzalea

## [ 30 EGUENA ]

**16:00 UDALEKUETAN IZENA EMATEKO EPEAREN IREKIERA**
7-13 urte bitarteko haurrei zuzenduta
Izena emateko: Elgoibarko Gazte Informazio Gunean (Kultur Etxeko bigarren solairuan) eman daiteke izena asteartetik ostiralera 16:00etatik 19:00etara.
Informazio gehiago: 943 741461 telefonora deituta edo elg.gzerbitzua@terra.es helbide elektronikoan
Antolatzailea: Gipuzkoako Foru Aldundia

## ZINE KARTELDEGIA

**ELGOIBAR** HERRIKO ANTZOKIAN
**«Orgullo y prejuicio»**
24, barixakua: 22:15
25, zapatua: 19:30-22:15
26, domekia: 19:30-22:15
27, astelehena: 21:30
**«La profecia de las ranas»**
26, domekia: 16:30
**«Paradise Now» (Z.K.)**
30, eguena: 21:30
**«Munich»**
31, barixakua: 22:15

**EIBAR,** UNZAGA
**«Tristan e Isolda»**
24, barixakua: 19:30-22:15
25, zapatua: 17:00-19:30-22:15
26, domekia: 17:00-19:30-22:15
27, astelehena: 19:30-22:15
28, martitzena: 19:30-22:15
29, eguaztena: 19:30-22:15

**EIBAR,** RIALTO
**«Transamerica»**
24, barixakua: 19:30-22:15
25, zapatua: 19:30-22:15
26, domekia: 19:30-22:15
27, astelehena: 19:30-22:15
**«Bambi II»**
25, zapatua: 17:00
26, domekia: 17:00

BARRENek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.

## «Paradise Now» (Zine Kluba)

**uzendaria: Joe Wright.**
**ntzezleak: Keira Knightley, Matthew Macfadyen.**
VIII. mende bukaerako Ingalaterra klasistan kutzen da amodio eta gaizkiulertuak batzen ituen historio erromantikoa. Bennet ahizpak, bost uztira, senarra topatzeko helburuarekin hezi ditu ma zorrotzak. Elizabeth, gazte adimentsu eta arakter andikoa da, ordea. Proposatzen zaiona aino bizimodu askeagoa desiratzen du eta aitaren abesa dauka. Auzoko berria, Bingley jaun zkongabe eta aberatsa, alperrik galdu ezineko ukera dela ohartuko dira Elizabethen aizpak.



**Zuzendaria: Hany Abu-Assad.**
**Antzezleak: Kais Nashef, Ali Suliman.**
Klaled eta Saïd, palestinarrak, haurtzarotik dira lagunak. Tel Aviden atentatu suizida egiteko erreklutatzen dituztenean lehergailuak gorputzari lotu eta fronterarantz abiatuko dira familiarekin azken afaria egin ostean. Alabaina, ezer ez da uste zuten moduan aterako eta banandu egingo dira: bakoitzak bere patu eta barne gogoei aurre egin beharko die. Nablusen filmatutako filmak muturreko egoeran, desesperaturik, bizi diren gizakien egunerokoaren ikuspegi interesgarria proposatzen du.

# Atzera begira



**1983** urteko erretratu hau **Xabier Eizagirrek** laga digu. Pilar Ikastetxeko ikasleak dira argazkian ageri direnak. Ikusten den bezala, jende mordoska bat zegoen gela honetan. “Baby boom”-aren eragina! Ikasle hauek 13 urte dituzte argazkian. Denbora ez da alferrik pasatzen! Gogora ditzagun zein diren gazte hauek:

Goian, ezkerretik eskumara: **Eduardo Alonso, Aitor Eguren, Javier Cruz, Migel Anjel Parada, Xabier Eizagirre, Aitor Osoro, Jose Manuel Perez, Juan Jose Gonzalez, Cristobal Agirre, Anartz Oñederra eta Manu Osoro.**

2. ilaran: **Julian (irakaslea), Alicia Gil, Leire Urbiola, Reyes, Alicia Osoro, Soraya Gonzalez, Antonio Vargas, Iosu Garate, Humberto Muñoz, David Tejero eta Pablo (irakaslea).**

3. ilaran: **Vicente Parada, Ana Rosa Hernaez, Ana Raña, Maite Torres, Rosa Revert, Eva Linares, Pili, Iratxe Garate, Amaia Ansola, Victoria Iraegi, Estibaliz Mekolalde eta Aitor Intxausti.**

4. ilaran: **Jose Manuel Ares, Juan Antonio Martinez, Edorta Garate, Tomas Arrieta, Ion Gurrutxaga, Borja Uriarte, Raul Gonzalez, Lisardo Vicente eta Rafa Riojano.**



**I. URTEURRENA**

2005eko martxoaren 23an, 85 urte zituela hil zen

***Maria Asunción Rementeria Beristain***en

oroimenez urteurreneko meza izango da,

larunbatean, hilak 25, arratsaldeko 19:00etan Parrokian.

Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.



# ZELETA BARAZ-

**NEKAZARITZA TRADIZIONALA eta BABESTUA**

- Landareen produkzioa
- Laborantza kontrola
- Eskuz eginiko aukeraketa
- Banaketa
- Bertako produktuetan erantzunik gertukoena



**Ekoizpen prozesuan energia berriztagarriak erabiltzen ditugu**

**ZELETA BASERRIA**
San Migel auzoa ELGOI-BAR



Makina Erremintaren Institutua
Instituto de Máquina Herramienta

INEM
Instituto Nacional de Empleo

COMUNIDAD EUROPEA
Fondo Social Europeo

INEM-EKIN ELKARLANEAN • FSE-ren dirulaguntzarekin

## LANGABETUEI ZUZENDURIKO IKASTAROAK
### (%100EAN SUBENTZIONATUAK)

| IKASTAROAK | ORDUAK | DATAK-ORDUTEGIA |
|---|---|---|
| AJUSTATZAILE MEKANIKOA | 419 | 06/04/10-06/09/29<br>Apirila, Maiatza 14:00- 19:00<br>Ekaina, Uztaila 08:00-14:30 |
| MAKINA ERREMINTAREN OPERATZAILEA | 444 | 06/05/31-06/11/15<br>Apirila, Maiatza 14:00- 19:00<br>Ekaina, Uztaila 08:00-14:00 |
| MANTENIMENDU MEKANIKOA | 409 | 06/04/10-06/07/24<br>Apirila, Maiatza 14:00- 19:00<br>Ekaina, Uztaila 08:00-14:30 |
| CNC BITARTEZ MAK-ERREM. PRESTATZAILE PROGRAMATZAILE | 444 | 06/05/12-06/11/03<br>Maiatza, Iraila, urria, azaroa 14:00-19:00<br>Ekaina Uztaila 08:00-14:30 |
| MANTENIMENDU ARGIKETARIA | 349 | 06/06/19-06/10/18<br>Ekaina Uztaila 08:00-14:30<br>Iraila, Urria 14:00-19:00 |

**Praktikak enpresetan, ikastaroa bukatu ondoren**

**I.M.H.**
**Azkue Auzoa, 1**
**20870 ELGOIBAR**

**Tel.: 943.74.41.32**
**Faxa: 943.74.41.53**
**e-mail: eli@imh.es**

**Ordutegia:**
**08:00-13:00 / 14:30-17:30**
**Eli Pozo**

# Gremioen GIDA

## Aroztegiak

**Biena**
Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 31 16

**Etxekit**
Sukaldeak eta bainuak
Antonio Arrillaga, z/g
☎ 943 74 43 47

**Garcia**
Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

**Imar**
Erreformak
☎ 943 53 14 71
☎ 646 90 55 64
☎ 609 05 49 78

**Lodoso**
Leihoak
Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabiliola 3. zenb.
☎ 943 74 34 90

**Soraluze**
Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
☎ 943 74 36 34

**Ulazia**
Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47

## Proiektu eta erreformak

**Estudios Arrillaga**
Errosario, 15 behea (Elgoibar)
☎ 943 744 055/943 744 019
Arragueta, 12 behea (Eibar)
☎ 943 200 698

## Iturgintza, berogailua, gasa, eguzki energia eta klimatizazioa

**Ongi**
Olaso Poligonoa,
15-68 pabiloia
☎ 943 74 28 80

**Pagoaga**
San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

**Pagoerrota**
Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44
☎ 659 33 43 23

**Tellabide**
Azpilgoeta, 19 MENDARO
☎ 943 75 50 62
☎ 607 75 50 62

**Zaldua**
Urasandi, 26
☎ 943 74 05 30

**Zubizarreta Instalazioak**
Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89
☎ 650 58 61 44

## Igeltseritza

**Antonio Markez**
Urasandi, 24
☎ 943 74 34 18

**E. Arandia**
Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04

## Elektrizitatea

**Aramar**
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

**Azpeleta**
San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

**Urzelai**
Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76

## Pinturak

**Biok dekorazioa S.L.**
Santa Klara, 26 behea ezk.
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

**Ipintza**
Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40/607 74 04 40

## Isolamenduak

**Glas Control S.L.**
Olaso 27, 47. pabiloia
☎ 943 74 30 94

## Indusketa lanak

**Lekunberri Indusketak**
Indusketa eta indusketa txikiak
Lekunberri baserria
☎ 943 74 20 98/629 42 56 32
koldo@movistar.com
www.excavacioneslekunberri.com